

13

Kuota diferentziala

13.1 Nola kalkulatu da kuota diferentziala?

Kuota diferentziala kalkulatzeko, kuota osoak abiatuko gara. 11. kapituluaren adierazi dugun bezala, kuota osoa ondoko bi kontzeptu hauek batuz lortzen da:

- Oinarri likidagarri orokorrari zergaren eskala aplikatuz ateratzen den kuota.
- Aurrezpenaren oinarri likidagarriari zergaren tarifa aplikatuz ateratzen den kuota.

12. kapituluaren esaten genez, kuota osoari kuotako kenkariak gutxitzen bazaizkio, kuota likidoa ateratzen da, inoiz ere negatiboa izango ez dena.

LABURPENA

$$\text{Kuota osoa} - \text{Kenkariak} = \text{Kuota likidoa}$$

Aldi berean, kuota likidoari kontzeptu jakin batzuk kentzen bazaizkio, **kuota diferentziala** ateratzen da. Hona hemen kontzeptu horiek:

- Lan etekinengatik egindako atxikpenak eta konturako sarrerak.
- Kapital higigarriaren etekinengatik egindako atxikpenak eta konturako sarrerak.
- Kapital higiezinaren etekinengatik egindako atxikpenak eta konturako sarrerak.
- Jarduera enpresarial eta profesionalen etekinengatik egindako atxikpenak eta konturako sarrerak.

- Jarduera enpresarial eta profesionalen etekinengatik egindako ordainketa zatikatuak.
- Ondare irabaziengatik (sari eta fondoetatik datozean) egindako atxikpenak eta konturako sarrerak.
- Aldi baterako enpresa batasuneko eta interes ekonomikoko taldeek atxikipenen eta konturako sarreraren kontzeptupean egotzitako kopuruak.
- Zergadunak egoitza aldatzeagatik hartzen badu zergadun izaera, Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergan egin diren atxikpenak eta konturako sarrerak, eta egoitza aldaketa gertatu den zergaldian Zerga hori dela-eta ordaindu diren kuotak.

LABURPENA

Kuota diferentziala = Kuota likidoa - Konturako ordainketak Nolanahi ere, aurreko apartatuaren aipatu diren kenkariak egin ahal izateko, agiri bidez frogatu beharko dira.

Kuota diferentziala bi motatakoa izan daiteke:

- **Itzultzekoa:** itzulketa ez da inoiz konturako ordainketak baino handiagoa izango.
- **Ordaintzekoa:** bi ordainketa modalitate izango dira aukeran:
 - Kuota diferentziala **bere osoan ordaintzea** 2014ko ekainaren 30ean.
 - Kuota diferentziala **bi epetan ordaintzea**:
 1. **2014ko ekainaren 30ean**, kuotaren %60.
 2. **2014ko azaroaren 10ean**, gainerako %40a.